# 2010eko EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA

# ELAren BALORAZIOA

**Bilbo, 2009ko azaroak 5**

## *ELAREN IRITZIA*

***EUSKO JAURLARITZAREN 2010RAKO AURREKONTU-PROIEKTUAK EZ DITU BEHARRIZAN SOZIALAK ASETZEN, ETA EZ DIO KRISIARI ERANTZUNIK EMATEN***

***2010rako aurrekontu-proiektua krisi ekonomiko baten erdian dator; Gobernuak 2009 urtean zehar aurrekontu-politika ezin okerragoa egin du: aurten baimendutakoa baino 800 milioi euro gutxiago gastatzeko asmoa du.***

***Beraz, egoera ekonomikoak okerrera egin duen arren, Gobernuak emandako benetako erantzuna aurrekontuko kopuru handiak ez gastatzea izan da, horrela krisia bera larriagotuz. Aurrekontuetatik gastatu gabeko diru hau gizarte-gastura eta enplegua sortzeko politiketara bideratu behar zen, baina Eusko Jaurlaritzak, besterik gabe, ez du nahi izan.***

***Eusko Jaurlaritzaren 2010rako aurrekontu-proiektuan gastu publiko maila apala aurreikusi da, 2009ko itxierarekiko %1 murrizten baita. Horrela, PSE-PSOEk eta PPk adostu duten proiektu honek 2009koa baino gastu txikiagoa jasotzen du.***

***Kopuru hauek berretsiko balira, Eusko Jaurlaritzak ekonomian duen pisua murriztu egingo litzateke: BPGdaren %15,2etik %14,9ra, datorren urtean ere atzeraldi ekonomikoak jarraituko duen arren, Gobernuak berak egindako aurreikuspenen arabera.***

***Gastu maila txikiagoak gizarte-babesean ondorio zuzena du. Adibidez, datorren urterako:***

- ***Osasunerako gastu publikoa BPGdaren %5,2an mantenduko da (esparru honetako beharrizanak gero eta handiagoak izanagatik).***
- ***Hezkuntzako gastu publikoa izoztu egiten da (euro kopuru bera da, eta 2009an BPGdaren %4,1etik %4ra jaisten da.***
- ***Etxebizitzarako gastu publikoa 2009rekiko %7,3 murriztuko da.***

***Honela gai hauetan eta beste batzutan (euskal erakundeen esku daudenak) ezagutzen ditugun defizit sozial handiak bere hortan geratu edo areagotu egiten dira. Gogora dezagun garapen ekonomikorik handiena duten estatuen batezbesteko mailara iristeko osasuneko gastu publikoa %47,7 hazi beharko litzatekeela, eta hezkuntzakoa, berriz, %40,3.***

***Horrenbestez, 2010ko aurrekontu-proiektua aurreko urteetako ildo beretik dator; Eusko Jaurlaritzak ez ditu asetzen dauden beharrizan sozialak, eta ez dio krisiari taxuzko erantzunik ematen.***

## 1.- EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA. 2010eko AURREKONTU PROIEKTUA ETA 2009rekiko BILAKAERA

*2010eko AURREKONTU PROIEKTUA ETA 2009ko LIKIDAZIOAREN AURRIKUSPENA. EUSKO JAURLARITZA*

| | **2010 (*)** | | | **2009 (*)** | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Milioi € | Guzti. % | PBGd % | Milioi € | PBGd % |
| Osasun eta Kontsumoa | 3.525,6 | 34,9 | 5,2 | 3.472,2 | 5,2 |
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa | 2.747,3 | 27,2 | 4,0 | 2.736,6 | 4,1 |
| Herrizaingoa | 710,3 | 7,0 | 1,0 | 706,4 | 1,1 |
| Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak | 478,6 | 4,7 | 0,7 | 515,2 | 0,8 |
| Enplegu eta Gizarte Gaiak | 622,0 | 6,2 | 0,9 | 619,2 | 0,9 |
| Ingurumen, Lurralde Plangin., Nekaza. eta Arran. | 289 | 2,9 | 0,4 | 334,3 | 0,5 |
| Besteak | 1.717 | 17,0 | 2,5 | 1.800,0 | 2,7 |
| GUZTIRA | 10.089,8 | 100 | 14,9 | 10.183,9 | 15,2 |

*Iturriak: 2010erako Euskal Autonomi Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorrako 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Eustat*

*(*) AHTaren eraikuntza dela eta Espainiar Gobernuari dagozkion kudeaketa kreditoak kenduta (225,4 milioi euro 2010eko aurrekontuan eta 25,7 milioi 2009ko gastuaren aurrikuspenean)*

## 2.- EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOAREN PISUAREN BILAKAERA EKONOMIAN

*GASTU PUBLIKOA (BPGd %). EUSKO JAURLARITZA, 1998-2010*




*Iturriak: 2010erako Euskal Autonomi Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorrako 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat*

*(*)AHTaren eraikuntza dela eta Espainiar Gobernuari dagozkion kudeaketa kreditoak kenduta (225,4 milioi euro 2010eko aurrekontuan eta 25,7 milioi 2009ko gastuaren aurrikuspenean eta 6,7 milioi 2008ko gastuaren likidazioan)*

## 3.- OSASUNEAN GASTU PUBLIKOA

*OSASUNEAN GASTU PUBLIKOA (BPGd %). EUSKO JAURLARITZA, 1998-2010(*)*




*Iturriak: 2010erako Euskal Autonomi Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorrako 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat*

*(*) "Kontsumo" sailari dagozkion kopuruak kenduta (6,5 milioi euro 2010eko aurrekontuan eta 3,4 milioi 2009ko gastuaren aurrikuspenean)*

*OSASUNEAN GASTU PUBLIKOA (BPGd %). 2007*




*Iturriak: ELGE, NEE, Eustat, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza*

## 4.- HEZKUNTZAN GASTU PUBLIKOA

*HEZKUNTZAN GASTU PUBLIKOA (BPGd %). EUSKO JAURLARITZA, 1998-2010*




*Iturriak: 2010erako Euskal Autonomi Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua, Administrazio Orokorrako 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat*

*HEZKUNTZAN GASTU PUBLIKOA. ELGE, 2006*




*Iturriak: ELGE, NEE, Eustat, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza*

## 5.- ETXEBIZITZAN GASTU PUBLIKOA

*ETXEBIZITZAN GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA BPGd %).*

*EUSKO JAURLARITZA, 2000-2010*

| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Milioi € | 86,4 | 86,3 | 119,2 | 136,7 | 154,3 | 157,4 | 171,6 | 188,9 | 198,8 | 193,0 | 178,1 |
| BPGd % | %0,2 | %0,2 | %0,3 | %0,3 | %0,3 | %0,3 | %0,3 | %0,3 | %0,3 | %0,3 | %0,3 |

*Iturriak: 2010erako Euskal Autonomi Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua,*

*Administrazio Orokorrako 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena,*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2000-2008, Eustat*

## 6.- GASTU FISKALAK

*GASTU FISKALAK ETA BENETAKO SARRERAK (GUZTIAREN %).*

*EUSKO JAURLARITZA, 2010*




*Iturriak: 2010erako Euskal Autonomi Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua*

## 7.- ZOR PUBLIKOA

*ZOR PUBLIKOA (BPGd %). EUSKO JAURLARITZA, 1998-2009*




*Iturriak: Administrazio Orokorrako 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat*